



# Euskadiko I+G arloko inbertsioaren zenbatespena

2020. eta 2021. urteetarako Euskadiko I+G arloko barne-  
gastuaren zenbatespenaren hirugarren edizioa

Martxoaren 29ko zenbatespena  
Ekonomia eta Ogasuneko Sailak martxoaren 25ean argitaratutako ekonomiari buruzko  
aurreikuspenekin eguneratua.

**innobasque**

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación



## Aurrekariak

2020ko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planean agindutako ebaluazio-funtziotik abiatuta, Innobasquek, Berrikuntzaren Euskal Agentziak, estatistika-erreminta bat garatu zuen 2019an, Euskadik I+Garen alorrean egindako inbertsioa aurrez zenbatesteko, eta, hala, lurraldeko berrikuntza-politikak bideratzen laguntzeko.

Zenbatespen horren oinarrian estatistika-eredu bat dago. Eredu hori Orkestrarekin, Lehiakortasunaren Euskal Institutuarekin, eta Eustatekin, Euskal Estatistika Erakundearekin, kontrastatu zen eta Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak horren diseinuan parte hartu zuen.

Eredu horren erreferentzia Euskadiko I+Gko aurrekontuak dira, bai eta Barne Produktu Gordinaren (BPG) bilakaeraren aurreikuspenak ere. Honetaz gain, Euskadiko I+Gko aurrekontuak enpresetako I+Garekin duen korrelazioaren azterketan ere oinarritzen.

Hirugarren edizio honetan, 2020 eta 2021erako inbertsioa zenbatesten da; hortaz, azaroan argitaratu ziren 2019ko azken datu estatistikoak eguneratu dira. Zenbatespenak, gainera, 2021eko martxoaren 25ean Ekonomia eta Ogasun Sailak argiaratutako ekonomiari buruzko aurreikuspenak hartu ditu kontuan.

## 2021ean, Euskadiko I+Gko inbertsioa % 4,1 haziko da

Inbertsioa hazi egingo da, Eusko Jaurlaritzaren aurrekontu-ahaleginari eta NextGenerationEU funtsei esker.

Innobasqueren zenbatespenen arabera, 2021ean, Euskadiko I+G arloko inbertsioa % 4,1 haziko da 2020ren aldean; hala, 1.607 M€-ko bolumena izango du, orain arteko handiena. Hazkundera 2020rako aurreikusitako % 4,2koaren antzekoa izango da.

Eusko Jaurlaritzaren funtsak areagotu izanak eta NextGenerationEU bidez finantzaketa gehigarria eskuratu ahal izateak bultzatuko dute hazkunde hori. Neurri horiei esker, finantzaketa publikoak % 7,2 egingo du gora 2021ean; hala, 2020rako aurreikusitako % 5,3ko hazkundera nabarmen gaituko da.

Finantzaketa pribatua % 2,7 handituko da, 2020rako zenbatetsitako % 2,5eko hazkundera neurri txiki batean gaituta. Bilakaera hori finantzaketa publikoan izandakoa baino motelagoa izango da; izan ere, inbertsio-bolumen handia duten sektoreetako enpresek, hala nola aeronautikak, denbora luzeagoa beharko dute pandemiak eragindako shocka gaitzeko. Finantzaketa publikoak ezinbesteko rola izango du suspertzea bizkortzeko.

Bukatzeke, nazioarteko finantzaketaren hazkundera gelditu egingo da 2020an asko areagotu ondoren (% 10 hazi zen); izan ere, bukatu egingo da Horizon 2020 Europako Batzordearen ikerketako esparru-programa eta berria hasiko da.

Miloi euro	2019	2020(z)	2021(e)
<b>Inbertsioa I+Gn</b>	<b>1.481</b>	<b>1.543</b>	<b>1.607</b>
• Finantzaketa publikoa <sup>1</sup>	546	576	617
• Finantzaketa pribatua <sup>2</sup>	807	826	849
• Nazioarteko finantzaketa	128	141	141
<b>BPG nominala</b>	<b>79.446</b>	<b>71.898</b>	<b>77.147</b>
<b>I+G arloko inbertsioa, BPGren gainean</b>	<b>% 1,86</b>	<b>% 2,15</b>	<b>% 2,08</b>

Urtearteko aldakuntza (%)	2019	2020(z)	2021(z)
<b>Inbertsioa I+Gn</b>	<b>+% 4,1</b>	<b>+% 4,2</b>	<b>+% 4,1</b>
• Finantzaketa publikoa <sup>1</sup>	+% 5,7	+% 5,3	+% 7,2
• Finantzaketa pribatua <sup>2</sup>	+% 3,6	+% 2,5	+% 2,7
• Nazioarteko finantzaketa	+% 0,5	+% 10,0	+% 0,0
<b>BPG nominala</b>	<b>+% 3,3</b>	<b>-% 9,5</b>	<b>+% 7,3</b>

<sup>1</sup> Goi mailako hezkuntzatik datorren finantzaketa barne.

<sup>2</sup> Irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuen (IAGEP) finantzaketa barne.

## I+Gko inbertsioa euskal BPGren % 2,08 izango litzateke


2021eko suspertze ekonomikoak bizkortu egingo du I+G arloko inbertsioa; hala posible izango da BPGren gaineko mailari eustea, % 2ko mailaren gaineratik. Maila horiek ikusi gabeak geunden euroaren krisia hasi zenetik eta, hazkunde horri esker, Euskadi berriro ere EB-27ko herrialdeen mailara iristeko bidean jarriko da.

2020 eta 2021ean, Euskadik I+G arloan egingo duen inbertsioa BPGren % 2,15 eta % 2,08 artekoa izango da, hurrenez hurren. Inbertsioa ez zen maila horietara heltzen 2012tik.

Azpimarratu beharra dago 2020ko atzeraldi ekonomikoak % 9,5 murriztu zuela BPG, Ekonomia eta Ogasun Sailak emandako datuen arabera. Hori dela eta, esanguratsua da 2021an BPG nominalaren hazkundera % 7,3koa izatea aurreikusten bada ere, inbertsio maila % 2ko atalasetik gora mantentzea.

Inbertsio maila hori 2012an hasi zen euroaren krisiaren aurreko urteetan erregistratutako mailatik gertu dago. Garai hartan, Euskadiko I+G arloko inbertsioak gaintitu egiten zuen EB-27ko herrialdeen batez bestekoa. Aurreikusitako bilakaera hori betetzen bada, Europar Batasuneko batez bestekora hurbilduko gara.

**Euskadiko eta EB-27ko I+G arloko inbertsioa, BPGrekiko**  
Euskadiko eta EB-27ko I+Gko barne-gastua, BPG<sub>mp</sub> nominalarekiko (%; 2008-2021)



Urtearteko aldakuntza (%)	2019	2020(z)	2021(z)
I+G arloko inbertsioa	+% 4,1	+% 4,2	+% 4,1
BPG nominala	+% 3,3	-% 9,5	+% 7,3

**Iturria:** Geuk egina, Eustaten (Ikerketa- eta garapen-estatistika), Ekonomia eta Ogasun Sailaren (2021eko martxoaren 25eko) eta Eurostaten datuetan oinarrituta.

## Enpresa eragileen taldea



I+G arloko inbertsio pribatua zenbatesteko, erreferentzia gisa hartu dira 10 euskal enpresa eragilek osatutako talde baten bidez jasotako datuak; enpresa horiek enpresek I+G arloan egiten duten inbertsioaren % 33 hartzen dute barne. 2021ean beraien inbertsioak % 1,55 egingo duela gora aurreikusten dute.




### Enpresen I+G arloko % 33

#### Ordezkaritza sektorial zabala:

Aeronautika, automozioa, energia, farmazeutika, metala, etab.



**ERANSKINAK**





## Zenbatespen-ereduaren azalpena

Innobasqueren ereduak I+G arlorako euskal aurrekontuak ditu oinarri; haien bidez, enpresen I+Grako finantzaketaren hazkundera kalkulatu da, eta, ondoren, Euskadiko aurtengo eta hurrengo urteko I+Gko barne-gastua. Eredua egindako korrelazio- eta kausalitate-analisien emaitza da.

### EUSKO JAURLARITZAREN AURREKONTUAK I-GRAKO

Lehendakaritzak Innobasqueren eskura jartzen ditu Eusko Jaurlaritzaren aurtengo eta hurrengo urteko I+G arlorako aurrekontuak.

### GASTU OSOA ZENBATESTEA

#### I+G ARLOKO GASTUAREN ZENBATESPENA, BARNE PRODUKTU GORDINAREN (BPG) GAINEAN

Zenbatespenak egiteko, Eusko Jaurlaritzaren Ogasun eta Ekonomia Sailaren BPGmp nominalaren hazkunderaren zenbatespenak hartzen dira kontuan.

#### I+GKO BARNE-GASTUAREN BEHIN BETIKO ZENBATESPENA

Hori kalkulatzeko, I+G arloko finantzaketa-iturri guztien hazkunde zenbatetsien batura hartzen da kontuan.

### ZENBATESPENAK, FINANTZAZIO-ITURRIEN ARABERA

**A** + **B'** + **C**

#### Administrazio publikoen I+G arlorako finantzaketaren hazkundera zenbatestea

Administrazio publikoen finantzaketaren hazkundera zenbatesteko, euskal partiden hazkunde-tasa leunduaren eta BPGmp-aren hazkunde-tasa hartuko dira aintzat.

**A**

#### Beste iturri batzuen I+G arlorako finantzaketaren hazkundera zenbatestea

Nazioarteko finantzaketaren hazkundera, goi mailako hezkuntzarena IAGEPen aurreko hiru urteetako hazkunde-tasaren batez besteko gisa zenbatesten da.

**C**

#### Enpresen I+G arlorako finantzaketaren hazkundera zenbatestea

Enpresen eta enpresa arloko irabazi-asmotik gabeko erakunde pribatuen (IAGEP) finantzaketaren hazkundera zenbatesten da administrazio publikoen finantzaketatik abiatuta.

**B**

#### Enpresen finantzaketa alderatzea enpresatalde interesgarriekin

Hasierako zenbatespenak zuzentzeko, enpresen finantzaketan pisu handia duten enpresa talde-bazkideekin alderatzen da.

**B'**

## Zenbatespen-hipotesiak eta egindako doikuntzak

Pandemia dela eta, zenbatespenak doitu egin behar izan dira. Zuzenketak egiteko, aintzat hartu dira euskal aurrekontuen bilakaera, NextGenerationEU funtsak eta I+G arloko 10 euskal enpresa eragileri egindako kontsulta.

Ereduaren zenbatespenak zuzentzeko suposizioak

### 2020KO FINANTZAKETA PUBLIKOA

- **Eusko Jaurlaritza.** Aintzat hartu da I+G programetarako aurrekontu-partiden % 8,07ko igoera<sup>1</sup> (Lehendakaritzak emandako informazioa). Zenbatetsi da igoera horren % 80 2020an exekutatu dela.
- **AEstatuko Administrazio Nagusia (EAN) eta foru aldundiak (FA)**  
Ez dute igo I+Grako aurrekontua.

### 2021EKO FINANTZAKETA PUBLIKOA

- **Eusko Jaurlaritza.** Aintzat hartu da I+G programetarako aurrekontu-partiden % 4,8ko igoera<sup>1</sup>. Zenbatetsi da % 80 2021ean exekutatu dela.
- **EAN.** NextGenerationEUren Berreskurapen eta Erresilientzia Mekanismoaren (BEM) funts gehigarriari esker, Garapen Teknologiko Industrialerako Zentroaren (GTIZ) proiektuen finantzaketan espero den hazkundera hartu da kontuan. Zenbatekoa kalkulatzeko, aintzat hartu da Estatuko Aurrekontu Orokorrek 2021ean Zientzia eta Berrikuntza Ministerioari eman dizkioten 1.200M € gehigarrien % 5,98 iritsiko dela Euskadira (Euskadik Estatuko BPGn duen pisua). Zenbatetsi da igoera horren % 25 2021ean exekutatu dela.
- **FA.** Hazi egin dira 2017tik 2019ra I+Gren finantzaketa publikoan duten pisu erlatiboari eusteko.

### 2020 ETA 2021EKO FINANTZAKETA PRIBATUA

- Enpresen finantzaketa zuzentzeko, euskal I+G arloko 10 enpresa eragileren erantzunak hartu dira aintzat, Erantzunei % 80ko garrantzia eman zaie eta ereduari % 20koa. Parte hartzen duten konpainiek enpresen I+G arloko % 33 osatzen dute eta hainbat sektoretakoak dira. Honako hauek dira enpresa horiek: Aernova Aerospace, Arteche, Faes Farma, Iberdrola, Ingeteam, Irizar, Mondragon Corporation, Sener, Sidenor eta Velatia.

Urtearteko aldakuntza (%)	2020	2021
<b>Enpresa eragileen taldea</b>	<b>+% 1,0</b>	<b>+% 1,6</b>
<b>Ereduaren emaitzak</b>	<b>+% 6,8</b>	<b>-% 5,1</b>
<b>Aplikaturako tasak</b>	<b>+% 2,5</b>	<b>-% 2,7</b>

### 2021EKO NAZIOARTEKO FINANTZAKETA

- **S2021.** Igoera % 0koa da; izan ere, berandu abiarazi da Horizon Europe.

<sup>1</sup> 5412- Ikerketa programa; 5413 - Teknologia programa; 5411 - Ikerketa eta Nekazaritza eta Arrantza Garapen programa; eta Berrikuntzarako Funts Estrategikoa.



## Aldeak datu errealekiko

Eredua tresna eraginkorra da, eta baliagarria dela erakutsi du.

	2018			2019		
	Datu zenbatetsia	Datu erreala	Zenbatespen-errorea	Datu zenbatetsia	Datu erreala	Zenbatespen-errorea
Inbertsioa I+Gn	<b>1.434M€</b>	<b>1.423M€</b>	<b>+% 0,8</b>	<b>1.496M€</b>	<b>1.481M€</b>	<b>+% 1,0</b>
Inbertsioa I+Gn BPGren gainean	<b>%1,87</b>	<b>%1,85</b>	<b>+0,02p.p.</b>	<b>%1,89</b>	<b>%1,86</b>	<b>+0,03p.p.</b>



innobasque

Berrikuntzaren Euskal Agentzia  
Agencia Vasca de la Innovación

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea • Laida Bidea 203 • 48170 - Zamudio – Bizkaia • [innobasque@innobasque.eus](mailto:innobasque@innobasque.eus) • T. 944 209 488

[www.innobasque.eus](http://www.innobasque.eus)